

GIZARTE-LANEKO LANPOSTUAREN PROFILA

Eskakizunak

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- Gizarte Laneko Gradua. Gerontologiako, Balioespen eta Jarduketa Sozialeko edo Familia Jarduketako prestakuntza osagarria
- Gizarte Langileen Elkargo Ofizialeko txartela
- Egoitzetan, eguneko zentroetan, udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan... izandako esperientzia balioetsiko da

Azalpena

Babesten Taldean, GIZARTE-LANGILE bila gabilta, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziiplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, Babesten Taldeko zentroetako arduradunaren eta zentroko Zuzendaritzaren menpean:

- Erabiltzaileei eta haien senideei gizarte-zerbitzu espezializatua ematea, egonaldi osoan erreferentziako pertsonak izatea, zentroko zerbitzuei eta programei buruzko informazioa eskaintzea eta aholkularitza zein laguntza ematea, erabiltzaileen ongizatea hobetzeko eta haien premiei zein aurreikuspenei erantzuten saiatzeko, zentrorako bisitaldiko eta harremanetako hasierako fasean (erabakiak hartzen lagunduko diete bertan) eta sarrerako, egokitzapeneko, egonaldiko nahiz altako hurrengo faseetan. Gainera, fase horietan guztietan, haien konfiantza bilatzea eta gogobetetasuna lortzea izango da helburua.

Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:

Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Sartu berriak artatzea eta koordinatzea, erabiltzaileei eta haien familiei hasierako elkarriketa egitea sarrera bera prestatzeko eta sarrerako hasierako balioespena egitea. Harrerako eta egokitzapeneko fasean agerpen handia izatea.
- Honako hauexei buruzko informazioa eta orientazioa ematea: zentroan eskainitako zerbitzu guztiak, tarifak, egoitza-leku hutsak, RRI, barruko jardunbideari buruzko arauak eta zentroko elkarbizitzari buruzko arauak.
- Helburuen programazio egokiaren bidez, zentroko gizarte-lanaren plangintza egitea eta antolatzea, zentroko bizimodu berrian erabiltzaileen integrazio eta partaidetza egokirako giroa ona izan dadin.
- Aisialdiko eta astialdiko jarduerak diseinatzen eta sustatzen laguntzea.
- Diziiplina anitzeko taldearen bileretan parte hartzea.
- Zentroko urteko memorian parte hartzea.

- Astero, honako hauexek betetzea: okupazioaren adierazleak, alden zein bajein jarraipena, merkaturatzeko prozesuak... Horrez gain, Zuzendaritzari eta sustapeneko arduradunari horren berri ematea.
- Zuzendaritzarekin batera, zentroaren eta komunikazio-planaren merkaturaketan parte hartzea.
- Garraio publikoa nahiz pribatua duten eguneko zentroetan, garraio horiek koordinatzea.
- Taldearen gaineratikoaren laguntzaz, erabiltzaileen eskubideak betetzen direla bermatzea.
- Erabiltzaileei eta haien senideei gogobetetasunari buruzko inkestak egitea.
- Euren jardueraren bitartez sortutako informazioa erregistratzea zentroko Zuzendaritzak adierazitako eta Kalitate Eskuliburuan zehaztutako formatuetan edota tresnetan.
- Oro har, aurretiaz zehaztu ez diren arren agintzen dizkieten jarduera guztiak egitea, euren titulazioaren eta lanbidearen arabera.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Sartu aurretiko fasean laguntzea eta sartu berrien zein haien familien premiak eta aurreikuspenak antzematea, behar bezala egokitu ahal izateko.
- Erabiltzaileei zentroan eta bertako jardueretan integratzen laguntzea, diziplina anitzeko taldeko kideak aurkeztea, erreferentziako langileak aurkeztea eta solairuko kideak aurkeztea.
- Erabiltzaileei eta haien familiei honako honexeri buruzko aholkularitza eta orientazioa ematea: eskuragarri dituzten baliabide sozialak, zerbitzuen eta prestazioen zorroa, itunpeko egoitza-lekuak, logela-aldaketa, jardueren garapena eta ordutegiak...
- Erabiltzaileei eta haien senideei heriotza-prozesuan laguntzea eta, horretarako, behar duten laguntza guztia ematea.
- Erabiltzaileen prestazio ortoprotesikoak kudeatzea (gurpil-aulkiak, takatatak...).
- Erabiltzaileen historia soziala egitea eta eguneratuta edukitzea.
- Tutoretza publikoan dauden ezgaituen jarraipena egitea eta tutoreak diren instituzioekin behar diren komunikazioak ezartzea.
- Erabiltzaileen arrisku-egoera sozialak nahiz legalak antzematea eta horri lotutako kudeaketa egokiak izapidetzea (legezko ezgaikuntza, aurreratutako borondateak...).
- Familiek zentrorra egindako bisitaldiak suspertzea eta senideen partaidetza aktiborako jarduerak antolatzea eta koordinatzea.
- Diziplina anitzeko taldearen gaineratikoarekin, erabiltzaileen banakako arretarako plana egitea. Horretarako, erabiltzaileen jarraipena egitea zehaztutako maiztasunaz eta txosten sozialak egitea.

- Erabiltzaileen integrazioa eta partaidetza bultzatzea zentroko bizimoduan. Horretarako, erabiltzaile guztien partaidetza sustatzea zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetan eta antolatutako banakako edota taldekako jardueretan.
- Erabiltzaileen inguruneko eragile sozialekin komunikatzen eta koordinatzen jarraitzea, deserrotu ez daitezen.
- Hala badagokio, senideei erabiltzaileen osasun-egoerari buruzko informazioa ematea, baina, batez ere, gertaera adierazgarriak daudenean (erorikoak, eratorpenak...), haien senideen egoeraren berri eduki dezaten.

Zentroko langileei dagokienez:

- Taldean bete-betean parte hartzea, diziplinarteko balioespenetan, haien ondorioz sortutako banakako arretarako planen prestaketan nahiz aurretiaz zehaztutako jarraipenetan.

Eskaintzen duguna

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundean (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi Linkedinen).
- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.
- **Bizkaian ditugun zentroetan (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo...).**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa